

# Telefonorik gabe ezin bizi

---

Amaia eta Josu hitz egitean ari dira Amaiaren motoaren ondoan. **Ikusi eta entzun** bideoaren lehen zatia, eta ondoren, **aukeratu erantzun zuzena**.

## *Zer gertatu da? Zein da egoera?*

- Amaiak eta Josuk erosketak atera dituzte mototik. Josuri motoa eroso iruditzen zaio eta bat erosi ala ez pentsatzen ari da.
- Amaia eta Josu etxera doaz erosketekin, eta Amaiak esan dio erosketak eramateko berak etxeraino.
- Amaia eta Josu erosketak egitera joango dira motoan. Josuk ez daki erosketak kabituko diren ala ez.

**Ikusi bideoa osorik** eta esan esaldiak egia ala gezurra diren. **2** gezur aurkitu behar dituzu.

	EGIA	GEZURRA
Josuren ustez motoa oso eroso da		
Erosketak erraz eraman dituzte motoan		
Amaiak ez dio Josuri motoa utzi nahi		
Josu haserre dago Amaiarekin, erosketetan lagundu diolako		
Josu telefonoa hartzeko amorratzen dago		

## Bideoaren transkripzioa

**JOSU.**- Aizu, Amaia, arrazoi zenuen, oso ondo moldatu gara, erosketak erraz sartu dira motoan. Oso eroso da.

**AMAIA.**- Bai, baina orain ez zaitez adarretatik joan eta esaidazu egia; ez zara gustura egon nirekin hizketan, lasai-lasai...-beste ezertan pentsatu gabe?

**JOSU.**- Bai, horregatik: zuk esan duzu erraz eramango genituela erosketak, eta hala izan da.

**AMAIA.**-Eta nik diot zu oso eskasa zarela disimulatzen, eta hala da.

**JOSU.**- Ez, benetan. Neuk ere pentsatzen hasi beharko dut, motoa erostea merezi duen ala ez. Kutxa, eserlekuaren azpian... gauza asko sartzen dira.

**AMAIA.**- Erosi nahi baduzu, erosi; baina badakizu: hau hemen dago, nahi duzunean hartzeko.

### ETENA

**AMAIA.**- Hori bai: motoan zoazela, ezingo duzu telefonoz hitz egin!

**JOSU.**- Aizu, Amaia, ni ez nago telefonoaren mende, aditu?

**AMAIA.**- Ez, ez, ez...

**JOSU.**- Ez ba! Eta bai, oso gustura egon naiz zurekin.

**AMAIA.**- Baina orain amorratzen zaude, etxera igo eta telefonoa hartzeko.

**JOSU.**- Ez da hainbesterako, neska!

**AMAIA.**- Ez, zera! Bueno, hartu bat eta goazen, e?

**JOSU.**- Ahoberoa!

**AMAIA.**- Hori bai, motoa hartzen baduzu gogoratu, e?

## Erantzunak

Zer gertatzen da? Zein da egoera?

Amaiak eta Josuk erosketak atera dituzte mototik. Josuri motoa eroso iruditzen zaio eta bat erosi ala ez pentsatzen ari da.

Egiak ala gezurrak identifikatu

Egia

Egia

Gezurra

Gezurra

Egia